

## **FUNTZESKO BALIABIDEAK:**

Orain gure enpresaren funtsezko baliabideen antolaketa ikusiko dugu.

Arlo honetan antolaketa oso garrantzitsua da, guztia eguneratuta izateko eta gure baliabideen egoera jakiteko

### **Baliabide fisikoak:**

Motorreko bateriak	50 bateria
Motorrak	21 motor
Neumatikoak	20 neumatiko
Furgoneta	Furgoneta bat
Erraminta kutxak	2 kutxa
Ordezko pieza orokorrak	Hainbat piezak motorrei aldatzeko
Karga postuak	25 karga postuak
Lokala	Lokal bat
Telefonoa	Telefono bat
Ordenagailua	Ordenagailu bat

Hauek izango dira gure baliabide fisikoak aurrera jarraitzeko gure enpresarekin, taula honetan daude aurrera ateratzeko erabiliko ditugun tresnak eta materialak, salmentak eta negozioak sortzeko eta horrela diru irabaziak izateko hemendik urte batzuetara.

Kargatze-postuak, neumatikoak, motorrak eta horrelakoak ezinbestekoak dira motorrekin etortzen zaigun edozein arazo konpontzeko eta, hartara, gure bezeroei ahalik eta traturik onena eskaintzeko.

### **Baliabide intelektualak eta giza baliabideak:**

Atal honetan gure enpresan gure zerbitzurik onenak eskaintzeko eta gure enpresa aurrera eramateko kontratatuak izango ditugun langileak ikusiko ditugu.

Mekanikoa	2 mekaniko izango ditugu
Idazkaria	Idazkari 1 egongo da
Banatzailea	Banatzaile 1 hartuko dugu

Ikus dezakegunez, ez dugu pertsona asko kontratatzen, pertsona gutxi kontratatzen joango gara, gure enpresa zabaltzeko eta are gehiago estutzeko askatasuna emango diguten irabaziak jaso arte. Momentu horretan izango da handituko dugunean gure enpresa eta haren langileak.

Langile bakoitzaren funtzioak azalduko ditut apur bat:

Pentsatu genuen mekanikoak hartzea ezinbestekoa zela motorrekin arazoak sortzen baziren, motorren edozein arazoak konpontzeko oso garrantzitsuak izango dira eta gure lokalan haien lantegia izango dute lan egin ahal izateko.

Gure ustez, oso ideia ona da bidean sortzen diren jarduera edo dilema guztiak antolatuko dituen pertsona bat izatea; izan ere, behar izanez gero, bezeroari arreta emateko zerbitzua eskain dezakegu, eta dena eguneratuko dugu enpresarentzat beharrezkoak diren keinuei eta datuei dagokienez.

Banatzaileak ere zeregin garrantzitsua izango du, matxuratuta dauden motorrak edo bateria kargatu behar dutenak garraiatuko baititu. lantegira eraman, mekanikariek beren lana egin dezaten, eta, ondoren, hiriko hainbat tokitako postuetan jarri.

### **Finantza baliabideak:**

Erabiliko ditugun baliabide finantzarioetako batzuk gure aurrezkiak dira. Horietatik 2.000 euro ditugu pertsona bakoitzak, guztira 8.000 euro, lau pertsona garelako.

Eta diruaren zatirik handiena mailegu batetik aterako dugu. Mailegu hori kuota erosoetan itzuliko dugu pixkanaka, eta denbora-tarte bat utziko digute itzuli beharrik gabe, irabaziak lortzeko eta dirua izateko mailegu hori bueltatzeko. **Zenbatekoa??? zer banketxean??? jarri baldintzak eta ordaindu beharko duzuen kuota.**